

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

Asturiasko eta Vianako printze-printzesak 2013ko Kulturaren “Vianako Printzea” Sariaren banaketa-ekitaldiaren buru izan dira

Daniel Innerarity-k ezagutzak gizartean bete beharreko balioa defendatu du

Jueves, 06 de junio de 2013

Asturiasko eta Vianako printze-printzesa Errege Gorentasunak San Salvador Monasterioan egin den 2013ko Kulturaren "Vianako Printzea" Sariaren banaketa-ekitaldiaren buru izan dira gaur osteguna, ekainak 6. Aurten, Daniel Innerarity Grau filosofoak eskuratu du saria.



Daniel Innerarity 2013ko Kulturaren Vianako Printzea Saria jasotzen.

Ekitaldia 11:30ean hasi da Ostatuko Patioan Felipe jauna eta Letizia Andrea buru direla; bertan izango dira ere saritua bera, Nafarroako Lehendakari Yolanda Barcina; Gobernuako kideak, Fou Komunitateko agintari politiko eta instituzional nagusiak, Nafarroako Kultura Kontseiluko kideak eta Daniel Innerarity-ren senide eta adiskideak.

Ekitaldiaren presidentetza abadia-elizako iparraldeko horman jarri da, Vianako Printzerriaren zutoihal heraldikoarekin apainduta. Felipe jauna eta Letizia andrea beren ohorezko aukietara iritsi direnean, Nafarroako Gobernuaren Tronpeta eta Atabalen Bandak Espainiako eta Nafarroako Ereserkiak interpretatu dituzte.

Konplexutasunaren kudeaketa

Jarraian, [Barcina Lehendakaria](#)k agerraldia egin du eta bertan printze-printzesari eskerrak eman dizkie bertan egoteagatik; horrekin batera, Innerarity-ren irudi artistiko eta humanoa goraiatu ditu, eta gizarte hobea lortzeko funtsezko tresna gisa filosofoak ezagutzarenganako azaldutako pasioa azpimarratu.

Sarituak saiakera-idazle modura duen nazioarteko ospea nabarmendu du Barcinak eta baita egun bizitzea egokitzen zaigun errealitate sozialari buruzko bere hausnarketa baliotsuak ere. "Gertakizun historiko bati aurre egiten ari gara, ziur asko Espainiaren trantsizio garaitik izandako erronka nagusia –azaldu du Lehendakariak–. Gertatzen ari den aldaketa sozialaren tamainak eta abiadurak ordezkari politikoak joko kanpo harrapatu gaitu eta gure diskurtsoa ere zaharkituta geratu da.

Innerarity-k ondo dioenez, "hiztegi politiko guztiak zahartu egin dira nahiz eta haien kontzeptuak erabiltzen jarraitze diren".

Ondoren, aipatu du, nolahi ere "gure erantzukizuna dela eta gure betebeharra gertakizun konplexu horiek kudeatzen jakitea", eta gaineratu du guztiok bat etorri arren politika aldatu egin behar dela, ez dago alternatiba eraginkorrek proposatzeko akordiorik: "Eta Innerarity aipatuko dut berriz ere, hark esaten duenean erraz samarra dela erregistratzea zerbaitek ondo funtzionatzen duela, baina gauzak zailtzen direla zerk ordeztu behar duen iragartzen denean", baieztatu du.

Barcinak azpimarratu du ere politikaren aldaketaren ideia "ez dela etorriko politikaren heriotzatik baizik eta duintasunaren itzuleratik. Hori dela eta, aldaketa politikoa "ez da herritarrek beren erakundeetan adierazitako borondatea ordeztzen lortuko", eta ezta "etorriko ere mugimendu populista eta totalitarioetatik, eta hartan inoiz sinetsi ez duten pertsonen aldetik ere".

Barcinak defendatu du Nafarroa Komunitate anitz eta askotarikoa dela eta 2013ko sari hau, hain zuzen, "aniztasunari, bizikidetzari, errespetuari eta ikuspegi integratzaileari eta ez baztertzaileari egiten zaion aitortpena dela".

Azkenik, Errege Gorentasunei gonbita luzatu die hurrengo Kulturaren Vianako Printzea Sarian izan daitezzen; hurrengo urteko sariak 25 urte beteko ditu eta –aurreratu duenez– saritu guztiak batzen saiatuko dira eta "etorri ezin direnak gogoratzen ahaleginduko gara, Alfredo Landa maitea esaterako, guztiok maitasun guztiarekin gogoratzen duguna".

Lehendakariaren hitzen ondoren, Juan Gaínza Berrok zuzendutako Iruñeko Orfeoien Eskolaniak, Bardos Lajos konpositore hungariarraren "Szellő zúg" (Brisak soinua egiten du) abestia interpretatu du.

Musika-interpretazio horren ondoren, Nafarroako Gobernuak Erakundeekiko Harremanetarako zuzendari nagusi Fátima Baigorri Romerok saria Daniel Innerarity-ri emateko foru-dekretua irakurri du eta, jarraian, saritua oholtzara igo da Felipe jaunaren eskuetatik saria jasotzeko.

Ezagutzaren balio soziala

Ondoren, bertaratuek 2013ko Vianako Printzea Saria jaso duen [Daniel Innerarity](#)ren hitzak entzun dituzte, eta hark sariagatik eskerrak eman ditu bere diskurtsoaren hasieran.

Izan dituen lehiakideen maila handia aitortu ostean, Innerarity-k esan du sari hau beretzat nahiz ezagutzak gizartean beteko duen funtzioarentzat dela. "Ezagutza saritzeak zenbait jarrera baloratzea dakar: iraunkortasuna, apaltasuna, espiritu kritikoa, elkarrizketarako jarrera eta egiaren bilaketa, bizikidetzarako oinarrikoak direnak". Balio horiek guztiak ez dute zerikusirik "krisi ekonomiko honetara ekarri gaituzten zekenkeria eta ergelkeria kolektiboaren kateatze desegokiarekin. Egungo hondamendi ekonomikoa ikusita, gaur oraindik argudio gehiago ditugu baieztatzeko gizarte bat libreagoa dela, eta aberatsagoa ere, bere ezagutza gero eta hobea den heinean".

Jarraian, haren iritziz gizarteak dituen hiru erronka nagusiez aritu da: gure kultura politikoaren aldaketa, pentsamenduaren balioa bizikidetzaren demokratikorako eta errespetu gehiagoko gizarte bat eraikitzeko beharra bere aniztasunarekin eta integratuagoa.

Hala, nabarmendu du "politika beste era batera egin behar dela, beste estilo batekin eta beste lehenetsun batzuekin", eta berriz esan du "governagarritasunaren aurrean ez gaudela bakarrik baizik eta kultura politiko klase baten amaieraren erdian". Azaldu duenaren arabera, herritarrek eskatzen dute gizartea egiten ari den sakrifizioa justiziaren esparru batean jar dadila. "Egia da ez dagoela mirarizko irtenbiderik, baina behintzat irtenbide bidezkoak izan behar dira"-aipatu du.

Bizikidetzaren demokratikorako pentsamenduaren balioari dagokionez, Innerarity-k defendatu du



Lehendakaria bertaratutakoan aurrean egindako agerraldian.

"dribling laburra egiteko teknika alde batera utzi behar dela eta politika handitasunez egin"; izan ere, gizarteak ez du akordioa zabalagoak osatzeko bere liderren gaitasun-eza ulertzen, hainbat eta hainbat herritarren zailtasun eta etsipen handiaren aurrean.

Sarituak gure artean erlazionatzeko dugun modua eta gure arteko ezberdintasun politikoen balorazioa aldatzeko beharra ere defendatu du; izan ere, haren aburuz, horretan hobetzeko asko dugu: "Bizikidetzara oso zaila egiten da besteak etiketatzeko ohitura dugunean eta gure aurreiritzien berrespena uneoro bilatzen dugunean eta ezberdina dena baztertzen dutenak, modu ireki batean edo zorrotasunez".

Eta gaineratu du: "Errespetu handiagoko gizarte bat eraiki behar dugu, bere barneko aniztasunarekin eta integratuagoa".

Felipe jaunaren hitzak

Ondoren, [Felipe jaunak](#) bere agerraldia egin du, eta sarituari nahiz haren familiari zorionak eman eta gero, Innerarity-ren hausnarketak azpimarratu ditu, pentsamenduaren historiaren jakituria sakon batean oinarrituta daudenak eta baita errealitatearen ezagutza zehatzean ere. "Hori hizkuntza argi eta zuzen batean egiten du —erantsi du—, denontzat ulergarria dena, eta neurrizko espiritu baikorrenekin".

Gainera, indarra hartzen ari den filosofoaren pentsamenduaren estatuko nahiz nazioarteko aitortpenaz jardun du "haren azterketaren zorrotasunari eta bere proposamenen koherentziari esker", bai eta jorratzen dituen gaien interes eta egokitasunari esker ere.

Agerraldian, Asturiasko eta Vianako Printzea gaur egungo "une zailtan" kulturaren aitortpenak duen garrantziaz aritu da. "Kalitatezko kultura gizarte guztian eragiten duen ondasuna da eta aurrerabidea, ongizatea, enpleguaren sorrera eta ekonomia sustatzen ditu", adierazi du.

Azkenik, diskurtsoari esaera batekin eman dio amaiera: "hobe da abilezia indarra baino", eta sarituak agerraldian aipatu duena. Felipe jaunak, gainera, denbora luzean "hitzaren abilezia erabiltzen" jarrai dezala desiratu dio Innerarity-ri


Jarraian, Eskolaniaren txanda izan da eta Pedro Elías Gutiérrez-en "Alma Ilanera" abesti venezuelarra interpretatu dute.

Ekitaldiaren amaieran, Felipe jauna eta Letizia Andrea, agintari nagusiekin batera, Ostatuko Patioa utzi dute kanpora irten aurretik Eskolaniako zuzendaria agurtuz eta absideen plazatik Monasterioko sarrera nagusira iritsiz.


Galería de fotos



. Innerarity saria Printzearen eskutik jasotzen.



Saritua bere agerraldian.



Daniel Innerarity diploma Felipe Printzearen eskutik jasotzen.



Barcina Lehendakaria bere agerraldian.



Lehendakaria bere agerraldian.



Errege Gorentasunak eta Daniel Innerarity, Nafarroako Kulturaren Kontseiluko kideekin.



Printze-printzesa Errege Gorentasunak eta saritua, sari-banaketara joan diren filosofoaren senideekin.



Irudi panoramikoa.